

# Alberto Zerain-en Biografia

---

Gasteizen jaio nintzen duela 47 urte eta txikitatik kirolak erakarri nau era berezian. Hasieran noski, ez nintzen ohartzen honetaz, jolas bat besterik ez zela kontsideratzen baitnuen. Nere aita pilotaria izan zenez, arnasa egin bezain normala egin zitzaidan niri frontoietan sartzea. Nere aitak Bitoriano pilotalekuan jokaturako partiduaz oso gutxi gogoratzen naiz zoritxarrez, segurazki batzuetan inork ez baitnindun eramaten zeren nere amak nahiko lanpetuta egongo zen izan gara zortzi anai-arrebetatik lehenengo bostak jada jaiok izanak zirelako. Baina aitak jokatzeko ez zuenean anaia eta biok eskutik eldutak formal formal abiatzen ginen berarekin, Bitorianora gehienetan. Partiduak hasi baino lehen kantxetako Modesto Ormazabal arduradunari pilota bat eskatzen genion eta frontoiko paretak berotzen genituen. Hori dela eta, eskolan frontoietako bezero bihurtu nintzan. Ahal nuen guztia jokatzeko nuen, nahiz eta batxutan nagusiek okupatzen zuten frontoia, eta beste batzuetan indarrez kentzen ziguten. Orduan, behartuta geunden beste kirolak egitera, eta eskaintza ez zen makala: burrukaldiak, zaldietara –gu ginen zaldiak-, kana jolasak, eta nola ez futbol edo saski baloia. Azken hauek, esistituko ez balira ziren niretzat. Inoiz ez naute kirol horiek erakarri izan eta orokorrean, taldeetan oinarritutak daudenak, ezda ere. Gero, judoa hasi nintzen praktikatzeko baino ez nuen jarraitu urdin koloretik. Alde batetik jolasa izatetik zerbait serioagoa bihurtu zelako niretzat, eta gainera burrukaldi batean ukalondoa apurtu zitzaidalako. Jolasten jarraitzeko parkeetan zeuden arbolak adarretatik igoteko, edo naturak eskaintzen zigun edozein sorpresa erabiltzen genuen.

Hamabost urtekin hasi nintzen lagun talde batekin haitz zuloetan sartzen, eta laster GEMI -talde espeleologiko Manuel Iradier- taldean egin nintzen bazkide. Iluntasuna eta lurrak barruan iskutatzeko zuen guzti horrek liluratuta utzi nindun. Batez ere ixiltasuna edo uraren tantek sortzen zituzten milaka hots ezberdin. Gehienetan buztita eta lokatzez beteta irteten nintzen leize hoietatik, horrek nekea eta amorrua sortzen zion nere amari, eta niri zer pentsa ere zekarkidan burura. Horregaitik erabaki nuen argitasunera azalaraztea eta eskalatzen hasi nintzen lurrazpian ibiltzen nintzen kuadrilletako batzuekin. Hamazazpi urtekin ametz gaizto bat zen niretzat behar zen

materiala lortzea, baino lagunen artean errezagoa zen behar genuen materiala pilatzea, gure erronka arruntei aurre egin ahal izateko.

Nahi gabe sartu nintzen eskaladako giroan eta nahi gabe, nere ondoan zebilzkidan eskalatzaile zailduak ziren niretzat izpilua non nire gaitasunak neurtu. Hori dela eta, serioago artu nuen zaletasun hori eta bizimodua ezberdinago hasi nintzen egiten. Alde batetik, entrenatzera joatea ohitura bat bihurtu zen eta nere erronkak mendian gero eta ugariagoak ziren.

Pirineoetatik Alpeetara eta gero Andeetatik Himalayara. Mendira joatea aitzaki bat zen bidaiatzeko.